

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 245. zkia. 2016ko maiatza

**Sarah Styling,
moda eta
konpromisoa**



Maiatzaren 28an

**ermuan
bagara**



Maiatzetik aurrera

 **esonline**[®]



Ermuan, fibra larrosa da
Orbe Kardinalaren plaza, 6



Nahi adina
dei finkoetara



100 mega



100 telebista-kanal
baino gehiago

45,40€

BEZ barne

Deituiguzu: 846 080 010

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Yanire Sagredo.

LAGUNTZAILEAK:Ainhoa Cenitagoya,
Ermua BHI,
Antonio Hernández 'Cuco',
Asier Ibaibariaga,
Patxi López,
Alicia Lorenzo
eta Valentin Mugarza.**ARGAZKIAK:**Amaia Arginzoniz,
Berbalagun, Paul Bustindui,
Ainhoa Cenitagoya,
Ermua BHI,
Estibalitz González,
Asier Ibaibariaga,
Valentin Mugarza,
Ignacio Pérez,
Yanire Sagredo,
Udal Liburutegia,
Txindurri, Naiara Uranga,
Dorleta Vidal
eta Matxalen Ziarsolo.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

BASASAGUA Ratón de campo *Apodemus sylvaticus*

Lapur ederra da bera: inoren hazi eta uzta, basoko gaztainondo eta hurritzak ederto dakizki arakatzen, eta sekula ez etxe kalte! Harrapatutakoa pilatu egiten du egur-meten azpian, txorien habi abandonatueta edo harrien arrakaletan. Bere habia, oster, lurpean egiten du sarritan, goroldio eta hostoekin babesa eta epelta-suna topatuz. Ernalketa sasoi, arrak beste arrak batzuekin partekatu dezake saguzulua. Emea arduratzen da kumeak aurrera ateratzeaz eta balizko harrapakarietaz

babesteaz, jaki samurra baitira kataginetak, azeri, lepahori eta santanderiarentzat, eta ezinbesteko elikagai gaueko mozo-lo, hontz eta enparauontzat. Urtean 4 kumaldi izan ditzake, jaioberri ilegabe eta itsuak munduratu; gerora baina, ikusmen eta usaimen zoragarria garatuko dute!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Ainhoa Cenitagoya (Italia)

ELKARRIZKETA5-7

Juan Luis Arrarte zestalari eta artekaria

MALLABIAN ZER?8-9

Arkaitz Uranga rally gidaria

MOTZEAN10

Komikiaren aldeko kanpaina

ERREPORTAJEA.....12-13

Sarah Styling bloga

MOTZEAN10

Txindurri Eguna

ESKOLEN TXOKOA15

Ermua BHIko berriak

BOTEPRONTOAN16

Kati Urzainki

KIROLZALE17

Matxalen Ziarsolok agur esan du

IRITZIA18

Euskaldun berititik, euskaldun herrira!

SALEROSKETAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA21

Badakizu zer den "Ermuan Bagara"?

AGENDA22

Ekaineko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ainhoa Cenitagoya

Bartzelonan ezagutu zuen bere senarra oporretan, duela bost urte eta erdi. Dena utzi zuen eta bizitza berri bati ekin zion, bere ametsei jarraituz. Monza e Brianza probintziako Giussano herrira eraman zuten amets horiek eta gaur egun bertan bizi da, gizonarekin eta Asia alabatxoarekin.

- Erabaki erraza izan zen Italiara joatea?

Ez. Beldur handia nuen, baina aldi berean gauza berriak ezagutzeko go-go. Gaizki irteten bazen, gauza asko ikasiko nituen; ez neukan ezer galtzeko. Lan barik heldu nintzen, inor ezagutu barik, eta familia eta lagunak atzean utzita: banekien ez zela bide samurra izango, baina maitasunagatik dena arriskatzeko prest nengoen.

- Nola irudikatzen zenuen Italia?

Ez nuen asko pentsatu, pelikuletan bezala imajinatzen nuen: pizza, makarroiak eta eskuak asko mugitzen duen jendea.

- Eta zer topatu duzu?

Milanetik gertu bizi naiz, eta presaka bizi den gizartearekin egin dut topo: egun osoa korrika, oihuka egiten diote elkarri, haserretzen dira, ematen du berandu heltzeko beldur direla beti! Oso estresatuta daude, eta ez da arraroa: trafikoa handia dago eta ez dago garraio publikorik, ez daude oso ondo antolatuta!

- Eta alde pertsonalean?

Bidaia honek nire bizitza aldatu du zentzu guztietan. Ezkondu naiz eta ume-



txoa izan dut: espero nuen baina dezentze gehiago! Fitness instruktorea naiz, eta lanari esker jende asko ezagutu dut. Azkar topatu nuen lana, nire esparruan ikasten jarraitu dut eta oso pozik nago.

- Zerbaitek harritu zaitu?

Estresak, txarto gidatzen dutela, edo zertarako kotxea behar izateak eta emakumeen artean dagoen lehiakortasunak.

- Zer moduz hizkuntzarekin?

Oso ondo. Etorri nintzenez ez nekien ezer, eta *pomodoro* izan zen nire lehen hitza (tomatea). Lehen hilabetean asko ikasi nuen telebista ikusten, eta nire senarraren amarekin. Hiru hilabete beranduago lanean hasi nintzen eta jendearen harremanarekin arazo barik hitz egiten hasi nintzen.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Aurten jardunaldi erdia daukat, alabatxoa zaindu ahal izateko. Goizean umearekin egon, bazkaria prestatu eta paseo-

txoa egiten dugu. Arratsaldean, mallak ipini, MP3a konektatu, musika topera ipini eta dena ematen dut nire lanean: zumba, pilates... tokatzen dena!

- Aisialdian?

Familiarekin egoten naiz: Monzako parkera joan, Milanetik edo Lecco laktik osteratxoa... Toscana eta Florencia maite ditut, beraz, urtean birritan landetxe batera joaten gara. Aurten gainera yoga irakaslea izateko ikasten ari naiz.

- Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak. Gainera, poteoetan sortzen den giroa, kotxea deneko hartu behar ez izatea...

- Hona bueltatuko zara bizitzera?

Buruan darabilgun ideia da, baina momentu egokiaren zain gaude seguruenik. Batek daki, beharbada egunen batean pentsatzeari utzi eta jautzia emango dugu.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Juan Luis Arrarte “Pola”, zestolari eta artekari ohia:

**“Esku pilotako apustu munduan dabilen
%95 zintzoa da”**

1941ean jaio zen Juan Luis Arrarte eta lau anaiaren artean hirugarrena da bera. “Ni nahikua pezeta irabazitxakua naz, ia zuek dolarrak irabazten dozuezen”, esaten zien aita palistak Juan Luisi eta bere anaiei, eta aitaren urratsak jarraitu nahi izateak-edo eraman zituen anai guztiak frontoietara. Juan Luis 6 edo 7 urterekin hasi zen zestan jokatzeko eta 17 urterekin debutatu zuen profesional moduan Palma de Mallorcako Balear frontoian. Mexiko eta Estatu Batuetan aritu eta gero, artekari ibilbideari ekin zion eta horretan ibili da azken 41 urtean. 2016an agur esan die frontoiko lan guztiei.

- **Nola gogoratzen dituzu zure lehen urteak frontoietan?**

Goizeko zazpitan jaikitzen nintzen frontoira joateko eta ikusle bakarria izaten genuen: Santos Suinaga "Machin", alkate eta pilotari izandakoa. Eskaileretan jartzen zen eta "Okariz! Pola!" deitu egiten zigun aholkuak emateko. Baina guk 9 edo 10 urte inguru bakarrik genituen... Eibarko Orbea frontoian ere jokatzeko genuen. Gero, benetan, 13 urterekin hasi nintzen.

- **Denbora dezente igaro zen debutatu zenuenera arte, ezta?**

Kostatu zitzaidan lesio bat izan nuelako besoan, tenisleriaren ukondoa, eta urte eta erdi inguru behar izan nuen osatzeko. Aurrelaria nintzen eta sakea atzelariak egin behar zuen, nik ezin nuelako, errebesa, errebotea, ezer ez! Injekzioak hartu eta masajistekin ibili nintzen, eta ezin sendatu. Uda batean Txurruka "Txatua" etorri zitzaidan: "Juan Luis, zer egiten dok hik hamen! Goazen Mallorcara!". Kalanbreak izan nituen, baina han sendatu zitzaizkidan min guztiak, egunero partidu bat jokatu. 28 partidu hilean, gutxi gorabehera!

- **Mexikora joan zinen orduan?**

Aurretik hona bueltatu nintzen soldadutza egitera, boluntario. Mallorcan egin behar nuen, baina Fermin anaiak esan zidan: "Itxaron apur bat, etorri hadi Habanara!". Kasualitatez, soldadutzan nengoenean Mugarza Nagusiari kontratua eskaini zioten Mexikora joateko eta gonbitea egin zidan, anaiaren lagun

handia baitzen. Floridara ezin nintzen joan, soldadutza egin barik nuelako, beraz, Mexikora joan edo soldadutza egin eta Floridara joan? Mexikora! Hala ere, sinatu behar izan nuen, Mexikotik bueltan, soldadutza egingo nuela.

- **Erabaki ona izan zen?**

Ez dakit, igual hobe soldadutza egin eta Mexiko beharrean beste leku batera joan izan banintz!

- **Ez zenuen esperientzia ona izan Mexikon?**


Bai, oso gustura ibili nintzen. 20 urterekin joan nintzen, 1961ean, eta herrialde miresgarria zen hura. Hiriburura joan nintzen eta Ermua eta Mallorcarekin alderatuta... 12 edo 15 milioi pertsona bizi ziren bertan ordurako! Zer zen leku hori! Eta bertan jakin nuen begi urdinak nituela. Gure etxean, amak, Felixek eta Jose Ignaciok ere begi urdinak zituzten, baina bertan ez! Bizitza guztian ez bezala bizi izan nintzen bertan!

- **Zenbat denbora egin zenuen bertan?**

Lau urte. Handik Tijuana joan nintzen urtebete, baina lesionatu egin nintzen, tirakada eman zidan gerrian. Miami joan nintzen, masajista batengana eta berriro Tijuana. Ordurako kontratua neukan Floridara joateko, Daniara (1965tik 1967ra).

- **Tijuanan ere gustura ibili zinen?**

Ez. Mexiko DFn beste bizi-modu bat zegoen: antzerki dotoreak, zine eleganteak... Erdi mexikarra sentitzen nintzen! Tijuanan, aldiz, ustelkeria handia zegoen: drogak, prostituzioa... Ez zitzaidan gustatu.



- **Salto handia izan zen Estatu Batuetara joatea?**

Bai, oso bizimodu ezberdina zen. Mexikon ederto bizi nintzen eta Floridan norberak dena egin behar: erosketak, janaria prestatu, harrikoa egin, arropa garbitu... dena ikasi behar! Beti gustatu izan zaizkit Estatu Batuak eta gustura egon nintzen, baina Mexiko aparta da!

- **Orlandora joan zinen handik?**

Bai, hiru urte egin nituen bertan, eta gehiago ere egin ahal nituen kontratua baneukalako. Baina aspertu egin nintzen: hiru seme-alabak jaiok ziren, joan eta etorrian ibiltzen nintzen. 34 urterekin bueltatu nintzen, 1975eko otsailean. Azken urte horretan *singleko* txapelduna izan nintzen Orlandon. Aurretik, 1970ean hona etorri eta Seat enpresan lanean hasi nintzen. Ez neu-

kan inora joateko asmorik baina Orlandora joateko aukera izan nuen. Orduan emaztearekin joan nintzen, ezkondu berri. Lau hilabeterako joan ginen, 100 funtzio. Gero haurdun geratu zen eta azken denboraldietan jolastera bakarrik joaten nintzen, eta berriz lanera bueltatu. Seaten hori errespetatzen zidaten.

- **Hemen ere jokatzeko zenuen?**

Bai, Durangon, Gernikan... Baina kanpora joateari utzi nionean, artekari izatea erabaki nuen, aita ere artekari izan zelako Bilbon, eskuko frontoietan, eta Felix anaia ere. 1975ean hasi nintzen artekari eta 2016ra arte ibili naiz, 41 urte egin ditut, azkenak Asegarcen. Eskuz eta palaz ere ibili naiz.

- **Nolakoa da artekari lana?**

Lan berezia da, eramaten jakin behar da.



Drogeteniturrri, 245 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

- **Jende zintzoa topatu duzu, oro har?**

%95 zintzoa da, %5 gaizkileak. Sasoi batean, zorrak uztea sakratua zen euskaldunentzako. Apenas utzi zizkidaten eta lagatzekotan nire ezagunek uzten zizkidaten. Eskuko frontoian oso zintzoak ziren.

- **Urte hauetan guztietan artekaritza aldatu da?**

Bai, hasieran aukera asko zegoen, diru asko jokatzen zen, Retegi II eta Arroyoren urteetan. Lanegunetan ere frontoiak bete egiten ziren! Eta garai onak ziren: erakuntza, burtsa... Euroa sartu zenean jokatu zen diru gehien, asko igarri zen. Dirua erraz irabazten zen garai ho-

rretan eta jendeak jokatu egiten zuen. Gero behera egin zuen. 2008an, krisia hasi zenean, %40 bajatu ziren apustuak, eta ordutik %10 urtero, %70ra heldzeraino. Lehen diru dezente ordaintzen nion enpresari eta azken urteetan apur bat, atera kontuak! Ez zegoen jokaterik! Orain berriro hasi da zerbait mugitzen.

- **Zer dela-eta?**

Gazteei esker. Olaizolak eta Irujok jende asko ekarri dute eta frontoiak bete egiten dituzte oraindik ere. Baina euren azkenetan daude!

- **Zein izan da ikusi duzun bueltarik handiena, diru aldetik?**

“Lehengo jokalariek ezingo lukete jokatu egungo pilotekin”

Eibarren, Bengoetxea-Olaizola, 9 eta 1 aurretik Olaizola. 1.000 a 40 edo 1.000 a 50, eta azkenean Bengoetxeak irabazi airez. Bestalde, Lau t'erdian ikusi dut diru gehien galtzen, Eugi-Unanue partidu batean. Eugiren alde egin zuen batek eta ezin dizut esan zenbat galdu zuen!

- **Zein frontoitan jokatzen zen diru gehien?**

Sasoi batean, Bergaran. Larunbatetan gizonak trago birekin etortzen ziren. Logroñon ere diru asko jokatzen zen.

- **Asko aldatu da pilota azken urteetan?**

Bai asko, materiala batez ere, eta jokalaria onek ikasi behar izan dute. Buruz burukoan inork ez dio botera ematen, denak airera. Olaizola ere ez zen ona airean, baina ikasi behar izan du. Aspaldiko pilotariak, Azkaratek esaterako, nola jokatuko zuen egungo pilotekin? Ezin jolastu!

- **Zein izan da pilotaririk onena eskuz zure ustez?**

Retegi II. Ogueta zen diferentzia handienak ematen zituena, baina nik ekin nionean beherantz zihoan jada. Eta As-

telena frontoirik onena.

- **Buruz buruko finalerako pronostikorik?**

Irribarriaren alde. Oso gaztea da, baina bi edo hiru urte barru ez dio inork itzal egingo. Zazpigarren koadrora esku biekien ematen dion bakarra da. Bere garaian Goñi Ilak ere ematen zion, baina ez zeukan bururik, ez afiziorik.

- **Eta historiako zestalaririk onena?**

Felix Areitio “El canguro” ermuarra, bera zen atzelaririk onena. Txorigalduena, baina Habanan gehien jokatzen zuena. Aurrean, Orbea.

- **Nola ikusten duzu zesta egun?**

Lehen frontoiak betetzen ziren. Dania Hollywood zen, eta emakumerik aberatsenak joaten ziren partidak ikustera: 5.000 edo 6.000 lagun. Gaur egun, 50 lagun biltzen dira, asko jota. Pala, erremontea eta zesta, hirurak daude lur jota. Eta Eusko Jaurlearitzak dauka erruaren zati bat, ez duelako ezer egin laguntzeko, pilotarekin egin duen bezala.

Asier Ibaibarriaga
eta Dorleta Vidal

Ignacio Alberdi eta Juan Luis Arrarte artekari ermuarrak.
Argazkia: Ignacio Pérez.

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

hamburguesería TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nítida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Modas Candé

Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Arkaitz Uranga, rally gidaria:

“Auto zaletasun handia izan dugu beti familian”

Familiatik jaso du auto zaletasuna Arkaitz Urangak, 16 urterekin hasi baitzen rally munduan. Urte batzuk Euskal Herriko txapelketetatik kanpo ibili ostean aurten itzuli da Oihane arreba kopilotu lanetan duela. Apirilean Mallabiko Gereaa auzotik igaro zen Lea-Artibaiko rally proban hirugarren postua lortu ondoren, datozen lasterketetarako gogotsu dago gidaria, aklimatazio urtea dela adierazten duen arren. Asteazken zehar Goitondo industrialdean dagoen Uranga Autoak tailerrean lan egiten du, asteburua heltzeko irrikaz berriz ere autora igotzeko.

- Txikitatik autoekin jolasean. Noiz eman zenuen jauzia lasterketara?

Hasieran eslalonean hasi nintzen, konoak saihestu behar diren proba horietan, eta 16 urterekin Euskadiko txapelketa irabazi nuen. Hurrengo urtean autokross txapelketa hartu nuen parte, horretan ere Euskadiko txapelketa izatera helduz. Rallyekin 20 urterekin hasi nintzen.

- Ez zara familiako bakarra rally munduan arituz dena, ezta?

Aita ere rally gidaria da eta oraindik ere hartzen du parte lasterketa batzuetan. Auto zaletasun handia dago-

en inguru batetik gatzoz eta gainera tailerrean lan eginda, afizioa ez zaigu falta.

- Aurten arreba txikia ere zurekin ari da kopilotu lanetan. Zelakoa da esperientzia hau?

Familian hiru anai-arreba gara eta nahiz eta erdikoak ez duen afiziorik, txikiari beti gustatu izan zaizkio rallyak. Karrera solte batzuk korritu izan ditugu azken urteetan, baina Lea-Artibaiko rallya izan zen serio hartu dugun aurrena eta emaitza onarekin bukatu genuen. Sailkapen nagusiko hirugarren postuaz gain, oso sentzazio onak atera genituen Oihane eta biok. Etorbizunera begira bide horretatik jarraitu nahi dugu.

- Nola prestatu zineten Mallabiatik igaro zen rallyrako?

Rallyko ibilbidea sekretua da proba ospatu baino au-



Argazkia: Press, Scratch.

rreko atera arte, horrela, denek baldintza berdinetan korritzen dugu. Kurba ondo markatu behar dira aste horretan. Guk Citroën Saxo batekin korritu nahi genuen, baina arazo batzuk medio, azkenean Peugeot 208 bat alokatzea erabaki genuen. Ostiralean rotuloak jarri genizkion, homologazio probak pasa genituen eta gauean ekin genion rallyari. Hasi-rako bi tramoetan bigarren bukatu genuen sailkapenean. Zapatuan, goizeko eta arratsaldeko mangan aurrekoen artean ibili ginen hirugarren generalean. Etxeko proban aurrean ibiltzea beti da pozgarria.

- Zein da aurtengo denboraldirako helburua?

Aurtengo denboraldian postuak lortzea baino, asko

ikastea da arreba eta bion helburua, urteetan egon bainaiz kopiloturik behar ez den probak korritzen eta alde handia dago. Bost urte errepedeetatik kanpo ibili ondoren denbora bat behar da itzulera egiteko. Horrez gain, berak ere ikasteko denboraldia du, bere aurreneko urtea baita kopilotu modura.

- Etorbizunera proiekturik baduzue?

Bai, hurrengo urteko denboraldiari begira, nire betiko autoa izan den Citroën Saxo autoa hobetzea da gure asmoa. Esperientzia hartzen dugun bitartean beste autoa ongi prestatzen jarraitu behar dugu hurrengo urtean hasierako postuetan lehia-tzen ibili nahi badugu.

Paul Bustindui



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale beheka, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

MALLABIKO UDALAK TOLDOAK EZARRI DITU HERRIKO FRONTOIAN, PILOTALEKUA ETA PROBALEKUKO FITNESS EREMUA BANATZEKO

Urteetan, pilotalekuko harmailetan dagoen berotze sistematik atzeko aldean dagoen fitness eremura joaten zen beroa. "Erregailuetako beroak ihes egiten zuen pilotalekuk, eta toldoak ezarrita epelago egongo dira harmailak", adierazi du Mallabiko Igor Agirre alkateak. Bi aldeak banatuta, eremu osoaren erdia baino ez da berotu behar izango. "Frontoiko harmailetan dauden pertsonak erosoago egoteko egindako egitura da, hotz handia egiten baitu bertan, batez ere neguan", adierazi du Agirrek.



Bizikleten garbitokia

Mallabiko udaletxearen atzeko aldean bizikletak garbitzeko azpiegitura bat eraikitzen dihardute. Egitura honekin, menditik datozen txirrindulariek bizikleta garbitzeko aukera izango dutela esan du Agirre alkateak eta datozen egunetan martxan egongo dela adierazi dute Mallabiko Udaletik. Frontoiaren estaldurarekin batera, bi egitura horiek ordaintzeko aurrekontua badagoela ere adierazi dute.

UDABERRIKO KONTZERTUEKIN ABIATUKO DA KULTUR HAMABOSTALDIA

Mallabiko Kultur Hamabostaldia ekitaldiz beteta dator. HERRIKO JASOKUNDE, MENDIBIL eta LAGUN ARTEAN abesbatzek antolatuko duten udaberriko kontzertua izango da lehenengo kultur ekimena ekainaren 4an. Aurten, gainera, Urduñako korala gonbidatuko dute. Nekazaritza eta arti-

sautza azokarekin batera, abereen erakusketa atonduko dute ekainaren 5erako. Bertoko elikagai osasuntsuekin lotuta, Berbalagunek tailer makrobiotikoa antolatuko du Zumarra elkartearen, ekainaren 18rako.

Kirol jarduerak

Kirol arloko hainbat hitzordu izango dituzte ekainean Mallabian. Tenis txapelketa izango da lehenengoa, eskolako frontoian. Ekainaren 10ean, ostera, Biharko Izarrak txapelketaren finala erabakiko da. Euskararen aldeko futbito maratoiarekin itxiko dute ekitaldia ekainaren 17an, 18an eta 19an, Mallabiko futbol taldearen eskutik.



BIHARKO IZARRAK PILOTA TXAPELKETAK WEBGUNEA IREKI DU

Mallabiko Biharko Izarrak pilota txapelketak webgunea aurkeztu du. www.biharkoizarrak.wordpress.com atarian aurten ekitaldiko pilotariak, sailkapenak eta egutegia kontsultatu ahal izango dira. Txapelketaren historia, palmarsa eta ibilitako pilotari ezagunen testigantzak ere batuko dira bertan.

Halaber, sare sozialak jarri dituzte martxan. Facebookean Biharko Izarrak orrialdea, eta @biharko_izarrak Twitter kontua. Informazioa helarazteaz gain, ikusleriaren interakzioa bultzatzea dute helburu bi kontu horiek.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

**Montis DQ
Mouth**

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

MUGA
KOKORRIK
San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

**EKAINAREN 23AN
EGINGO DA SAN
JUAN SUA**

Urtero bezala, San Juan sua antolatuko du Euskal Birusa Elkarteak Txindurri Txistu eta Dantza Taldearekin batera. Plazan egingo da sua, 22:00etan hasita, eta egitaraua guztiz lotu barik dagoen arren, dantzaz, akelarrez, irrintzi lehiaketaz, korru dantzez eta suzko zezenaz gozatuko dute bertaratzen direnek.

**ALBOKAREN
ENTZUNALDIAK
EKAINEAN**

Bost entzunaldi eskainiko ditu Alboka Musika Eskolak ekainean. Hilaren 13tik 16ra, musika ezberdina entzuteko aukera izango da Lobiano Kulturgunean 19:30etik aurrera. Hilaren 17an, ostiralean, Alboka Eguna ospatuko da eta kontzertua egingo da Ermua Antzokian, 22:00etan hasita.

**IGO EKIMENA
BUKATZEAR
DAGOENEO**

Aurtengo "Irakurri, Gozatu eta Oparitu" ekimena maiatzaren 31n bukatuko da. Oraindik badago aukera Liburutegian liburu bat maileguan hartu, irakurri eta %35eko deskontu txekoa jaso eta erabili ahal izateko. Txeke horiek Xiripot eta Maribel liburudendetan erabili ahal izango dira.

Hartzaren koplek melodia entzun zen Bilbon

"Loraldia" kultur ekitaldi sortaren barruan *Joxemiel Bidador* pastorala antzeztu zen Bilboko Azkuna Zentroan, Alhondigan, Iruñeko hainbat talderen ekimenez. Gure sorpresarako, Guillermo Bengoetxea ermuarraren *Hartzaren koplek* melodia erabili zuten pastoraleko kantuetako batean. Ihitz Iriart, Amaren Alabak taldeko partaidea, ikuskizunaren zuzendarietako bat izan da eta talde horretako bere kantu-lagunekin Ermura etorri zen batean koplek entzun, gustatu doinu eta melodia Iruñeko istorio bati egokitu zion. Plazera eta benetan hunkigarria izan zen bertaratu ginenontzat ermuarrak ez ziren ahotsetatik hain gurea den kantu bat entzutea!

**Komikiaren irakurzaletasuna bultzatzeko
kanpaina bukatu da**

Udal Liburutegiak bigarren ezabiatu du aurten komikien eta eleberri grafikoen irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina. Nagusiki gazteei zuzendutako egitasmo horren barruan, hamar tailer burutu dira: bost literaturaren ikuspuntutik eta beste bost ilustrazioaren ikuspuntutik. Peru Magdalena idazle, bertsolari eta ilustratzaileak eta Unai Iturriaga bertsolari, idazle eta gidogileak gidatu dituzte saio literarioak. Ermua BHIko eta San Pelayo Ikastetxeko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek, gainera, Unai Iturriagaren *Diamanteak, urrea eta ikatza* (Athletic Club Fundazioa, 2015) komikiaren ale bana jaso dute, Athletic Club Fundazioak eskainita. Ilustrazio tailerrak Josean Morlesin marrazkilaria eta UPV/EHUko Arte Ederretako irakasleak eman ditu. Gaur egun 836 komiki daude Liburutegian (liburu guztien %2,7): 353 komiki helduentzat, 103 gazteentzat eta 380 umeentzat. Datorren ikasturtean komikia derrigorrez irakurri beharko dute herriko LH eta DBHko ikasle guztiek.

**Aurtengo Berbalagun azken txanpan sartu da**

Berbalagun egitasmoa ikasturteari agur esateko prest dago, baina aurretik, ekitaldi ugari eskainiko dizkie nahi duten ermuar eta mallabitar guztiei. Ekainaren 8an, asteazkena, 10:00etan, eta plazatik irtenda, "Ermua ezagutzen" ibilbide gidatua egingo da. Ekintza horrek ordubeteko iraupena du eta bertan 1950. urtea baino lehen nolakoa zen Ermua ikusi ahal izango dute parte hartzaileek. Ekainaren 11 eta 12an, asteburu-pasa egingo da Baztanen, eta parte hartu nahi dutenek ekainaren 6a baino lehen eman beharko dute izena. Taldearen azken afaria, ekainaren 17an egingo da, ostirala, Urkaregi jatetxean (20€) eta hilaren 24an azken Gurasolagun Irekia burutuko da. 17:00etan egingo da, plazan, eta antolatzaileen esanetan, "jarduera mundiala egingo da guraso eta umeentzako Antxitxiketan taldearen eskutik". Mallabiar dagokionez, makrobiotika tailerra egingo da ekainaren 18an (larunbata) San Juango elkarte gastronomikoan. 11:00etan hasiko da ekitaldia eta hiru zatitan banatuko da: hitzaldia, bazkariaren prestaketa eta jana.



T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

Heapaindegia

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamttxuqueria.mt>



GASCA
gourmet

Etkez-etxeko zerbitzua
Menu osasuntsuak
Aukera zabala



Menu osoa 6,29€tik hasita

Probatu orain 1,80€tan

*Jaso zure etxean zure
beharrei egokitutako menuak*

Informazio gehiago:

946 420 420

gourmet@grupogasca.com

www.gascagourmet.com



IES UNIBHI

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA

EKAINAREN 6tik 17 ra

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIKOA
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRAZIOA

+ PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT

ATE IREKIAK: Maiatzaren 28an, 11.00etatik 13:00etara



www.uni.eus

idazkaritza@uni.eus

TEL: 943 20 84 44 / 943 17 62 57



www.facebook.com/iesunibhi



@UniEibarErmua

Sarah Styling, moda eta konpromisoa eskutik

Publizitatean lizentziatua da Sarah eta esku artean bere biziko proiektua dauka: Sarah Styling Secrets bloga. Moda, emakumeen ahalduntzea, jasangarritasuna eta bizitza-estiloa uztartzen ditu bere artikuluetan eta dagoeneko bere lanaren lehen kimuak ikusten hasi da. Bidaia luzea du aurretik, baina sinetsita dago lehenago edo beranduago bere lanetik bizi ahal izango dela.

A benduan abiatu zen sarahstylingsecrets.com bloga eta Sara Rodríguez ermuarra da horren sustatzaile eta arima. Izarrako hazitegian eman zituen lehen urratsak iazko urrian, ekintzaileei zuzendutako ikastaroa egin eta gero. Hasierako proiektua zenbaitetan zalan-tzan ipini, eta goitik behera aldatu eta gero, zerotik hasi eta oraindik edukiz hobeto jantzi behar duen espazio pertsonala du sarean.

“Gaur egun blogari asko dago, eta ezinbestekoa da bereizten zaituen zerbait topatzea eta merkatuan zure tartetxoa bilatzea —dio berak—. Nik arazo bat daukat eta hauxe da: Nire blogak lau atal ditu (moda alternatiboa, jasangarritasuna, feminismoa eta bizitza-estiloa), eta


oraindik ondo definitu behar dut zer landuko dudan atal bakoitzean. Izan ere, nire modarekin identifikatzen diren askok, beharbada, ez dute interesik feminismoan, edo jasangarritasunean edo bizitza-estiloan, eta esparru guzti horiek lotzeko moduaren bila nabil oraindik”.

Moda alternatiboaren izenburupean, bere estiloarekin zerikusia duten *postak* eta tutorialak irakurri eta ikus daitezke. “Ez nauzu sekula normal jantzita ikusiko, ez zait arrunta dena gustatzen. Ezberdina izan naiz beti, eta hori ez dut nik esaten, betidanik esaten didate —argitzen du—. Oso estilo pertsonala dut, barne-barnean sentitzen dudana eta arroparen bitartez nire pentsaera eta sentimenduak adierazten ditut. Txikitatik moztzen ditut nire kami-

setak, zapatilak margotu... eta heldu ahala konturatu naiz ezberdina izatea ona dela. Hori dela eta, amorrua ematen dit modari jarraitzearen edozer ipintzen duen jendeak, euren pentsaerarekin bat ez etorri arren”.

Iraunkortasunaren sailean arropa jasangarria egiten duten markez idazten du. Bigarren eskuko arropa topatzea erraza dela dio, baina onartzen du oso zaila egiten zaio la bere estetikarekin bat datorren arropa jasangarria topatzea. “Orain arte uste zuten jendeak arropa jasangarria erosiko zuela jasangarria zelako, estetikari kasu egin gabe. Eta ez. Berdin dio kamiseta bat kotoi organikokoa edo lihozkoa bada, ez bazaizu gustatzen ez duzu erosiko —azaltzen du—. Horretan dabilta markak egun: estilo pertsonala lantzen, modu jasangarrian lan egiten duten bitartean”.

Feminismoari dagokionez, enpresa propioa duten diseinatzaileen, ekintzaileen eta ikonoen berri ematen du. Azkenik, bizitza-estiloan bidaia



Yanire Segredo

eta musikari buruzko berriak jasotzen ditu.

Buru-belarri blogari

Gaur egun webgunea elikatzeari dedikatzen ditu eguneko ordu guztiak, beste leku batean lanaldi partzialeko kontratu batekin lan egiten duen bitartean, “momentuz ezinbestekoa” duela bizirauteko, dio. Aitortzen du webguneak asko eskatzen diola, eta behar bezala edukiz hornitzeko, hainbat ekitalditara joaten

Talde-saiok
Hirugarren adinerako gimnasia
Emakumeen korrikalari klubak
Kirol aholkularitza, planifikazioa eta jarraipena

eSporti
CENTRO DE ENTRENAMIENTO PERSONAL

Entrenamendu pertsonalak
Análisi biomekanikoak
Talde bikiak
Superaldi funtzionala

Iparragirre 13 Behea (Ermua) • 943177094
e.sporti.cep@gmail.com

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

etxedreams
COLCHONERIAS

-%50!!
Atsedendiaz hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Ermua)
943 177 041

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

dela. “Jasangarritasuna orokorrean lantzen duen Slow Fashion Next elkarteak antolatutako hitzaldi batzuetan parte hartu dut duela gutxi —azaltzen du—. Ez nago guztiz ados haien mezuarekin, baina konferentzia horiei esker asko ikasi dut, eta jende mordo ezagutzeko aukera izan dut”.

Izan ere, jendea ezagutzeko eta lagun sare handia izateak berebiziko garrantzia du blogarien unibertsoan lekutxo egiteko. “Gasteiz On Pasarelan parte hartu nuen apirillean eta sari bat eman zidaten. Gainera, bertan Nerea Garmendia aktore eta diseinatzailea ezagutu nuen, eta maiatzean berarekin bat egin nuen berriro Gipuzkoa de Moda pasarelan. Nire estiloa gustatu zitzaion eta bere dendaren inauguraziora gonbidatu nau”, dio pozik.

Baina ez du mugarik. Euskal Herritik kanpo ere oihartzuna izaten ari da: Jo eta ke eskatu ostean, tindagai marka ezagun batek (kimika gutxi

erabiltzen duena eta animalietan probatuta ez dagoena) bere argazkietan etiketatu du eta ordutik jarraitzaile gehiago ditu Sarahk sare sozialetan; Finlandiako neska batekin kolaborazio bat egin du, eta hilero bere produktuak bidaltzen dizkio blogean ezagutzera emateko; eta, sarrera izan barik, Cibeles pasarelako hainbat desfile ikusteko aukera izan zuen, tartean David Delfinena eta Agatha Ruiz de la Pradarena. Azken hori bigarren ilaratik ikusi zuen, eta Agathak bere webgunean publikatu zuen Sarahren post bat eta iraileko Cibelesera gonbidatu zuen. “Azken hila-beteak oparagoak izaten ari dira azken 4 urteak baino, enpresaz enpresa, praktikaz praktika eta trukean ezer jaso barik. Orain lehen bezain pobrea naiz, baina denbora laburrean lorpen handiak egiten ari naiz!”, dio pozik.

Bere lorpenik handiena, hala ere, egiten duenaren truke ordainsaria jasotzea izango li-

tzateke. Onartzen du asebeteta dagoela, baina dirua jasoko balu, jende gehiagorekin lan egiteko aukera izango luke. Eta horrek kalitatea erantsiko lioke blogari, edukiak hobeto lantzeko aukera izango lukeelako. “Nire argazkilaria, Yanire Sagredo, eta nire neba dira momentuz nire laguntzaileak, azken horrek webgunea egin baitit. Ezin diet gauza handirik eskatu, borondatez egiten dutelako lan, eta hori kudeatzea zaila da”.

Lan asko egiten du bere proiektua aurrera ateratzeko esperantzarekin: bloga, Facebook eta Instagram kontuak, YouTubeko kanala... “Sare sozial bakoitzean eduki ezberdinak ditut, jarraitzaileak ere ezberdinak direlako, baina horrek esfortzu handia eskatzen du”.

Jarraitzaileak izan, baditu, baina bere estiloarekin jende asko identifikatzen da gure inguruan?: “Hemen ez daukagu batere estilo alternatiborik, guztiak goaz berdin jan-

tzita. Ingalaterran, aldiz, moda alternatiboak arrakasta handia du eta blogari alternatiboek jarraitzaile asko dituzte. Badakit nire blogak kanpoko jarraitzaile asko izan dezakeela, baina horretarako ingelesez idatzi beharko dut, soldatapeko itzultzailea izan... Momentuz pazientzia beharko dut eta astiro-astiro joan”.

Dorleta Vidal



Udalekuak Ingelesez Ermuan

ADINA
4 urtetik
11 urtera

“20 urte baino gehiagoko esperientzia ingeles-klasetan”

Tailerrak, Ipuinak
Antzerkiak, Jolasak
Mozorroak, Irteerak
Sukaldaritza, Eskulanak...
Eta askoz gehiago!

**DEITU GURE
ZENTRORA!!**



NOIZ

Ekaina
27

Uztaila
23

ORDUA

9:30etik
13:30era

Akerlei
hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA

943 17 66 32

www.akerlei.com

BIDARI EGUNA OSPATU ZEN MAIATZAREN 21EAN

Ermuko Gutxitu Fisikoen edota Organikoen Taldeak, Bidarik, lasterketa herrikoiairen edizio berria ospatu zuen maiatzaren 21ean. Proba 11:00etan hasi zen Orbe Kardinalaren plazan, eta helduentzako eta umeentzako ibilbide ezberdinak egon ziren. Bukatutakoan, opariak jaso zituzten parte hartzaile guztiek eta txikiek Antxitxiketan Aisialdi Taldeak antolatutako jokoez gozatu zuten; helduek, berriz, tragoa eta pintxoak jateko aukera izan zuten plazako txosnan.

TXIRIGOTA SOLIDARIOA EKAINAREN 4AN

Ekimen solidarioak burutzen dituen Isekin elkarteak antolatuta, txirigota solidarioa egingo da Ermua Antzokian. Cádizeko La Factoria txirigotak eskainiko du emanaldia, ekainaren 4an 22:00etan hasita, eta jasotako diru guztia gaixotasun arraroak dituzten umeei bideratuko da. Sarrerak 10€tan daude salgai Burduntzi tabernan eta Andaluziako Zentroan.

Txindurri Eguna ospatuko da ekainaren 11 eta 12an

Txindurri Dantza eta Txistu taldeak bere eguna ospatuko du ekaineko bigarren asteburuan. Larunbatean, hilak 11, 12:30ean ekingo diote ospakizunari, dantza-poteo batekin. Arratsaldean, 19:00etan, nagusien taldearen erakustaldia egongo da plazan eta 19:30etik 21:30era erromeria eskainiko du Gauargi taldeak. 21:30ean, azkenik, Larrain-dantza herrikoia egingo da. Domekan kalejira izango da 10:00etatik 12:00etara; talde osoaren erakustaldia, berriz, 12:30ean hasiko da plazan, eta jarraian bazkari autogestionatua egingo dute taldekideek Merkatu Plazan. Bukatzeko Emepebost taldeak erromeria eskainiko du.



“Ongi etorri, errefuxiatuak” banderola jartzeko deialdia egin dute

Ermuko Nazioarteko Lankidetzeta eta Elkartasunerako Batzordeak eskatu du errefuxiatuen aldeko ikurrak balkoietan jartzeko. “Gudatik eta miseriatik ihes egiten ari direnei gure harrera abegikorra adierazteko modua izango da. Europar Batasunak hartu duen erabakiari aurre egiteko modua ere bada, hesiak ipini eta mugak ixtearena, hain zuzen ere”, esan dute ekimenaren sustatzaileek. Ermuko Udaletxeko balkoian dagoeneko ikus daiteke ikur horia.



Ermuko merkatariek desfile solidarioa egin dute

Udaberri-uda denboraldirako moda, zapata eta osagarriak erakusteko xedearekin, desfile solidarioa burutu zuen Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarteak maiatzaren 20an. Hamahiru dendek hartu zuten parte (4 ile-apaindegi eta beste bi laguntzaileen kolaborazioarekin), Ermuko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. “Gure bezeroei azken joe-rak eskaintzeko helburua dugu, eta aldi berean herri modernoa eta berritzailearen irudia zabaldu nahi dugu eta Ermuko merkataritzarentzako erakusleho pribilegiatua bihurtu”, nabarmendu zuten arduradunek. Sarrerek bi euroko prezioa zuten eta bildutako diru guztia egoera latza igarotzen ari diren herriko familiei laguntzeko erabiliko da, Elikagaien Bankuaren bitartez denboraldiko elikagai freskoekin hornitu ahal izateko.

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak,
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain
KOTXKO GILTZEN KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarbiketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

Ermua BHIko ikasleak Ekain Berrin

Apirilean, Ekain Berriko kobazuloa ezagutzera joan ginen Ermua BHIko 1DBHko ikasleak. Egun zoragarria eta eguzkitsua eduki genuen. Iritsi bezain laster, kobazulora sartu ginen eta pinturak aztertzeari ekin genion. Gehien marraztutako animalia zaldia zen. Esan behar dugu oso artista onak zirela gure arbasoak!

Geroxeago, ehiza egitera joan ginen. Horretarako, antzinako ehizarako tresnak erabili genituen: geziak, lantzak... Nik neuk bi bider eman nien orein bati eta basurde bati, baina lasai egon! Gezurrezko animaliak ziren! Barrezka eta algaraka pasatu genuen goiza. Eguerdian, ogitartekoa jan eta berehala jolasekin hasi ginen. Ekain Berriko ingurua oso ederra denez, argazki pilo bat atera genituen.

Irteera hau benetan gomendagarria da, izan ere, gure arbasoen bizimodua ezagutzeko balio izan digu.

Dounia Achahbar Azarkan



Komunitateak

San Pelayo

**Aholkularitza
juridikoa**

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

petuqueriaizaskun@gmail.com
petuqueriaizaskun.wordpress.com

CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

**Egokitutako burua
garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

Quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [g]

KATIURZAINKI

- **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Haurtzaro zorionsua dut gogoan, hiru neba-arrebak elkartzen ginen eskolatik irten eta gero, Ana eta Laura lehengusinekin batera. Etxean giro ona genuen.

- **Eta gaztaroa?**

Lehen kalean eta tabernetan ibili ohi ginen, egun, ordea, lokaletan sartzen dira.

- **Umetan zer izan nahi zenuen?**

Txikitan ez neukan ezer pentsatuta egia esanez gero, BUPen hasi nintzen pentsatzen; Arte Ederren eta Magisteritzaren artean egonik, azkenengo hori hautatu nuen.

- **Zenbat urterekin hasi zinen lanean?**

24 urteak lanean ospatu nituen, beraz 23 urterekin Centro Culturalean hasi nintzen lanean, egungo Eskolabarrin.

- **Nolakoa izan zen hasiera?**

Zailagoa izan zen, gero esperientziak asko laguntzen du, gela barruan edota klaseak prestatzerako orduan.

- **Zer irakatsi dizu bizi-tzak? Eta umeez?**

Gauza garrantzitsu gutxi daudela eta ez duela sufritzerik merezi irakatsi dit bi-



Mari Tere Izagirre eta Angel Urzainkiren alaba dugu ermuar hau, hiru neba-arreben artean erdikoa. 50 urte ditu eta 27 urte igaro dira Eskolabarrin ikastetxean lanean hasi zenetik. Ermuan bizi da senarrarekin.

zitzak. Garrantzia benetan daukanari eman behar zaio. Umeek berriz, argiak direla eta zer nahi duten ondo dakitela. Gauza asko ikasten dugu umeengandik.

- **Gogorra egiten da umeekin lan egitea?**

Boladak daude, batzuetan bada gogorra, baina esperien-

tziarekin batera ikasten da.

- **Zure lanaren alde positibo bat eta negatibo bat?**

Positiboak asko daude, ikasturte bakoitza desberdina da eta Eskolabarrin talde kooperatiboa denez, horrek dakarren talde lana. Negatiboak begiraturaz, gauzak egiteko burokrazia gehiegi dagoela eta

denbora dezente galtzen dela horretan, tramite artean.

- **Bizio bat?**

Gozokiak eta txokolatea.

- **Zure bizitzan zerbait aldatuko bazenu...**

Gauza garrantzitsuetan ezer. Zerbait aldatzekotan denbora libre gehiago izatea egunerokotasunean.

- **Erraz haserretzen zara?**

Pazientzia nahikoa dut. Gure lanean pazientzia beharrezkoa da, jendearekin tratua dela medio ez dugu besterik.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Edozein tontakeriak, detaile txikiak ere. Kalean ikusitako zerbaitek edota umeen arteko hizketak ere.

- **Bidaia bat nora?**

Leku asko ditut buruan, Estatu Batuak, Finlandia...

- **Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?**

Lasai gosalduta.

- **Eguneko momentu bat...**

Arratsalde edo gaua aldean, lan guztiak amaitu ostean sofan esertzen naizenean.

- **Zure bizitzako egunik zorionsuena?**

Asko daude. Aukeratzekotan, nire lobak jaio zirenean.

Amalia Arginzoniz



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Matxalen Ziarsolok agur esan dio eskubaloari

Matxalen Ziarsolo Areitioaurtena eskubaloiko jokalaria izan da orain arte Donostiako Bera Bera taldean. Bederatzi urterekin Ermuan hasi zen eskubaloian jokatzen, hasieran Ikastolako taldean, eta geroago Ermuko Eskubaloit taldean (gaur egungo Errotabarrin). 34 urterekin, agur esateko ordua iritsi zaio.

1 6 urte luze eskubaloian profesionalki jokatzen igaro ondoren eta garaipen zerrenda bikaina atzean utzita, 19 zenbakiari agur esateko momentua iritsi zaio. 1.420 gol patrikan (bigarren golegilea Tati Garmendiaren atzetik), 5 Kopa, 5 Superkopa eta 3 Liga, laugarrena lortzeko bidean.

Hautzaro eta gaztaro polita oroitzen du, lagunekin batera. Gogoan ditu bere lehenengo entrenatzaileak,

Marcelo, Irantzu eta abar. Reyes Carrere izan da Bera Bera taldeko ohorezko mailako entrenatzailea duela bizpahiru urtera arte, eta harekin igaro du Ziarsolok ibilbide gehiena. Reyesen ostean ermuar bat heldu zen, Imanol Alvarez, hark urtebete besterik ez zuen egin taldean, eta bere ordez Aitor Etxaburu eibartarra etorri zen. Egun Montse Puche da entrenatzailea.

Entrenamenduak eta ikasketak zirela-eta Donostian



bizi zen astean zehar, baina asteburuetan Ermura etortzen zen lagunengana eta familiarengana. Humanitateak eta enpresa gradua Deustuko unibertsitatean burutu zituen. Gainera, gurasaok izan ditu jarraitzaile sutsuenak: partidu guztietara joan izan dira berarekin batera eta eurak izan dira agurraren berri izan duten lehenak.

Oro har taldekideekin harreman oso ona izan du, Eli Pinedo eta Esther Larreategi jokalaria ohi eta lagunarekin, besteak beste.

Baina, Matxalenen esanetan, agur esateko garaia heldu da. 2015eko urriaren bukaeran lesio gogorra izan zuen: 3 hilabetetan oina lurrean jarri ezinda ibili da. Orain askoz hobeto dago eta guztiz sendatzeko gogo bezte dago Matxalen.



Emakumezkoen kirolaz ez da ahazten. Emakumezkoen kirola gora doala onartzen du, baina oraindik lan handia egiteko dagoela eta gizonetzkoen maila berera heltzeko pausu handia egin behar dela dio.

2026ko apirilaren bukaran malko artean, prentsaurreko baten bidez agur esan zion eskubaloari. Aupa Matxalen! Zorionak zure lan bikainagatik!

Amaitia Arginzoniz



**Zure
publizitatea:**
DROGETEN ITTURRI
943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Euskaldun berritik, euskaldun herrira!

Iazko Euskararen Nazioarteko Egunean (abendua 3an), euskaldun berri guztiei esker-rrak emateko asmoz, "Euskaldun Berria Kalea" ekimena abian jarri zen. Euskara ikastea erabakitzen duten guztiei, beraien esfortzua eta ekarpena eskertzeko herriko kaleren bat horrela izendatzeko proposamena luzatu zen. Eta hila-bete honetan, Ermuak proposamen honekin bat egingo du.

Oso ekimen polita da nire ustez, heldutan euskara ikasteko ahalegina egin dutenei, euren ahalegina zoriondu eta errekonozitzeko. Euskaldun berrien sindrome hori gainditzeko laguntzeko. Batzuetan, euskara ikastea baino zailagoa dena! Nolakoak garen, ezta?

"Euskaldunberria": Euskaldun + Berria.

Berria hitza, hiztegiak: Duela gutxi sortua, ezagutua, lehengoaren ordekoa, zahartu gabea, freskoa... Beraz,

zer edo zer positiboa, aberasgarria. Gauza berriak, gehienetan, onak dira.

Baina, euskaldun kontzeptuari gehitzen diogunean, zer gertatzen da? Sarritan, positibo izateari uzten diola eta mailak definitzeko erreminta bihurtzen dela. Euskaldun berria eta euskaldun zaharra. Hasiberriak eta adituak. Hizkuntza bat eta bi etiketa. Estereotipoak, beldurrak, lotsak agertzen dira.

Euskaldun berriak noiz uzten dio berria izateari? Non dago muga? Eta erdian daudenak?

Kategoriak eraikuntza sozialak dira, guk sortu eta edukiz betetzen ditugunak. Eta ikusten denez, ez dira neutroak. Nork bere autopertzepzioan, legitimazio sentimenduan... eragin dezakete. Gaur egun oraindik, sarritan, euskaldun berria entzuten dugunean, kotxearen atzeko partean L-a daramanarekin lotzen dugu.

Bi kontzeptu horiek alde batera utzi behar direla dioten gero eta ahots



Alicia Lorenzo

gehiago dago, eta ni ere ados nago. Alde batetik oso estatikoak direlako eta bestetik "kategoria" batzuk sortu direlako eta sortzen ari direlako... Bada garaia hori gainditzeko!

Baina gaur, utz ditzagun alde batera aldarrikapenak, etiketak eta arreritziak, eta esfortzuaren, kemenaren balioaz hitz egin dezagun. Euskara ikasi dutenei euren erabaki eta esfortzua eskertuko diegu. Eman diguten guztia itzultzeko unea da. Plaza bat, euskaltegi edo eskolatik ateratzean euskaraz egiten jarrai dezagun... Baina pena litzateke hemen geratzea. Zergatik ez dugu harrresi hori botatzen, zergatik ez zuzenean *euskaldun* izendatzen?

Eman dezagun urrats bat gehiago eta Iker Salaberria Urkizuk idatzi zuen moduan: "Joan gaitezen euskaldun berritik euskaldun herrira!".

“ Euskaldun berriak,
noiz uzten dio berria izateari?
Non dago muga? ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33




URRETA burdindenda

- × *Etxea*
- × *Tresneria*
- × *Brikolajea*
- × *Ervailak*
- × *Giltzak*
- × *Sarrailagintza*
- × *Kit altzariak*

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ALOKAIRUA
 Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu.
 © 648 64 37 15

SALMENTA
 Aparkaleku itxi bikoitza saltzen dut San Pelayon (Dia supermerkatuaren azpian). -2 solairua.
 © 649 621 866 edo 670 861 775.



Maiatzaren 28an Zorionak Naroa eta oso ondo pasatu zure 4. urtebetetzean! Musu handi bat etxeko guztien partez!



Maiatzaren 24an Zorionak June. 7 urte zoragarri pasa dira. Muxu handi bat familiaren partez.



Ekainaren 10ean Zorionak amatxo zure seme-alaben partez. Ondo pasa zure eguna eta musu asko.



Maiatzaren 23an Zorionak Aratz zure 9. urtebetetzean. Ondo pasa eta jaso opari asko.



Ekainaren 5ean Zorionak Izaro zure 8. urtebetetzean, Eder, aita eta amatxoren partez. Asko maite zaitugu.



Ekainaren 2an Zorionak Jon zure 12. urtebetetzean, asko maite zaitugu. Musu asko familiaren partez. Horrela segi!!!



Maiatzaren 10ean Zorionak Xuban zure lehengusuen partez. Patxo potoloak, guapo!



Maiatzaren 16an Zorionak etxeko txikiari. Musu erraldoi bat zure 1. urtebetzean, Lier!



Ekainaren 12an Zorionak Eider zure 13. urtebetetze egunean, Irati eta gurasoen partez. Musu handi bat.



Maiatzaren 24an Zorionak Leire!! Musu handi bat familiaren partez eta ondo pasa!!!



Maiatzaren 6an (Amaia), maiatzaren 23an (Ivan) eta maiatzaren 30ean (Leire) Zorionak hirukote!! Oso ondo pasa zuen urtebetetze egunetan familia osoaren partez. Musu handi bat hirurontzat.

DELFINA ZABALA BENGEOA
 Jose Andres Izaguirreren alarguna

1920-XII-25 / 2016-IV-24

Euskal Biruseko lantaldea

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua drogeten@gmail.com helbirera. Azken eguna: ekainaren 13a.

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
 Tel. 943 17 66 34
 Tel. mugikorra 630 01 13 41
 48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
 Tel. 943 17 98 60
 48260 ERMUA (Bizkaia)

GINEKOLOGA
M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK
 IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON, Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa, Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA
 Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR
 (2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan
 Telefonoa: 943 20 28 57

**MALLABIA
1951**

Argazki hau 1951 ingurukoa da. Bertan, Astarlo baserriko familia agertzen da.

Aurrean gurasoak: Juliana Zabala eta Martin Sangroniz; atzean seme-alabak: Felix, Maria eta Juan.

**ERMUA
1956**

Ana Mari Agirregomezkorta, Marisabel Garitagoitia, Rosa Mari Iturriagoitia, Jose Luis Unamuno, Nicolas Unamuno, Jose Ignacio Arrarte, Miguel Angel Izagirre eta Diego Garagorri abadea.

Egunotan 60 urte betetzen dira erretratu hau plazatik Erdiko kalerako eskaileratan atera zutela. Beheko ilaratik gora eta ezkeretik eskumara: Miren Agus Ardanza, Jose Antonio Zabala, Blanki Iturriagoitia, Angel Mari Gastón, Iñaki Salaberria, Mari Jose Areitio, Juan Jose Ibarrola, Mari Paz Araiztegi, Luis Albizu txistularia, Elena Mas, Arantza Agirregomezkorta, Bakarne Ibarrola, Maribi Mallagarai, Amparito Iturriagoitia, Alberto Zumelaga, Joseba Idigoras erakustailea, Benjamin Izagirre, Milagritos Abarrategi, Juan Jose Telleria,

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

Maiatzaren 28an “Ermuan Bagara” ekimena burutuko da Ermuan. Hamabi ordu eta erdiz, euskara nagusituko da gure kaleetan, eta adin guztietarako ekimenetan parte hartzeko aukera egongo da.

**Badakizu zer den “Ermuan Bagara”?
Euskararen erabilera sustatzeko ekimen aproposa dela uste duzu?
Parte hartuko duzu?**



Ez neukan honen berri, baina Liburu eta Disko Azokan kamisetak ikusi ditut salgai. Egitasmo aproposa iruditzen zait euskara herrian zabaltzeko: zenbat eta ekimen gehiago, hobe. Ni Durangarra naiz eta han ez da horrelakorik egiten; aldiz, egun osoko irakurketak egiten dira.

Esther García, 48 urte



Eibartarra naiz, baina Ermuan egiten dut lana, eta ez neukan horren berri. Ekimen polita iruditzen zait, baina ez dakit eraginkorra izango den. Umeei asko kostatzen zaie eskolatik kanpo euskaraz egitea, eta kaleko ekimen batean hori sustatzea oso zaila iruditzen zait.

Silvia González, 43 urte



Egia esan, logoa hainbat lekutan ikusita neukan, baina ez nekien zer zen. Ideia ona iruditzen zait, baina euskara sustatzeko modurik onena da dakigunok erabiltzea. Antzerako ekitaldiak ezagutzen ditut eta parte hartu izan dut. Maiatzaren 28an ere arratsaldean hurbilduko naiz seguruenik.

Aitor Landarroitajauregi, 24 ute



Ez dakit zer den, orain arte ez dut ezer entzun. Eibartarra naiz, baina askotan egoten naiz Ermuan, eta ez neukan horren berri. Nik euskara ulertzen dut, baina ez dut hitz egiten, beraz, ez dut horrelako ekintzetan parte hartzen. Hala ere, iruditzen zait egokia izan daitekeela euskara sustatzeko.

Iñigo García, 39 urte



MUSIKA

Hilak 3:

Kontzertua: Lina Charif (musika berebera). 22:00etan. Antzokian.

Hilak 4:

Kontzertua: Cadizeko txirigota solidariora. 22:00etan. Antzokian.

Hilaren 13tik 16ra:

Kontzertuak: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30ean. Lobiano Kulturuganean.

Hilak 17:

Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak (Alboka eguna). 22:00etan. Antzokian.

DANTZA

Hilak 11:

Txindurri eguna: Euskal dantzak, erromeria eta larraindantza. Plazan. 19:00etatik aurrera.

Hilak 12:

Txindurri eguna: Euskal dantzak, bazkaria eta erromeria. 12:30etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Hilaren 6tik 19ra:

Margoa: Mugartea taldearen lanak.

Hilaren 20tik 3ra:

Margoa: Udal margo eskolako ikaslearen lanak.

Lobiano

Kulturuganean.

18:00etatik

20:00etara.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 10ean eta 17an:

Haurrentzako jolasak: Barixakuetan. 17:30ean. Plazan.

BESTELAKOAK

Hilak 4:

Kulturarteko jaialdia: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Plazan.

Hilak 11:

Marcán Huella jaialdia: hainbat ekitaldi. 19:00etan. Antzokian.

Hilaren 13tik 19ra:

Gastronomiari buruzko jardunaldiak.

Hilak 18:

Gau irekia.

Hilak 19:

Haize zabaleko margo lehiaketa herriko kaleetatik. 9:00etatik aurrera.

Hilak 23:

San Juan Sua: hainbat ekitaldi. 22:00etan. Plazan.

**Hilak 26:**

El Rozioko erromeria: hainbat ekitaldi. Betiondoko aparkalekuan. 11:00etatik aurrera.

Hilaren 27tik 3ra:

San Pelaio auzoko jaiak: hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan.

Patxi López



Maiatzaren 23tik 27ra ZOKZETA, Merkatarri eta ostalari elkarteak antolatua. Sari banaketa, Maiatzaren 28an 14:00etan plazan.

Maiatzaren 23tik 27ra ZOKZETA, Infreñu tabernak antolatua. Sari banaketa, Maiatzaren 27an 22:00etan Infreñu tabernan.

Maiatzak 25, SOLASALDIA: Euskalgintza eta feminismoa bidaiakide, Ermuko emakumeen asanbladak antolatua. Partaideak: Lorea Agirre Dorronsoro eta Mari Luz Esteban Galarza. Moderatzailea: Bea Narbaiza Amillategi. Tokia: Ermuko Emakumeen Topalekua/ Ordua: 19:00etan

Maiatzak 27, BERTSO AFARIA: Eskilarapeko ateneak antolatua. Bertsoariak: Asier Unanue, Josu Araiztegi eta Xabier Uriarte. Gai jartzailea: Ermuko Bertso Eskola. Tokia: Eskilarapeko/ Ordua: 22:00etan

MAIATZAK 28, 12 ORDU ETA ERDI EUSKARAZ

10:00 Hasiera

10:00 KALEJIRA Orbe plazatik hasita, irulitxa fanfarrea.

10:00-12:00 KIROLGUNEAK: Errotabarri eskubalo taldea, Futbol eskola, Pilotazale taldea, Atletismo taldea.

11:00-12:00 DUATLOI TXIKIA, Ostots triatloi kirol kluba.

12:00-13:00 IKASTAROAK: Enpanada, Galiziako zentroa. Puntua eta hainbat kontu, Ermuko amama-aixitxak. Lorea gozoa, Extremadurako zentroa. ANTZERKIA, Gaztela-Mantxako zentroa. GRAFITIAK, Ermua BHiko ikasleak.

12:15 KALEJIRA Orbe plazatik, Alboka musika eskola.

12:20 EUSKALDUN BERRIA PLAZAREN inaugurazioa eta euskaldun berriei omenaldia, Ermuko Udala.

12:30 KONTZERTUA, Alboka musika eskola: Pispilu abesbatza eta banda.

12:45 KALEJIRA Euskaldun berria plazatik, Alboka musika eskola.

13:00-14:00 MINTZODROMOA Berbalagun egitasmoa. TAILERRAK: Haurrentzat, Anaitasuna ikastolako guraso elkarteak. Zirkoa, Gazte Asanblada.

14:00 SARI BANAKETA, Merkatarrien eta ostalarrien elkarteak.

14:15-14:40 EKITALDI NAGUSIA | FLASHMOB, Antxitxiketan aisialdi taldea.

14:40 ARGAZKI JENDETSUA, Ermuko euskaltzaleen sarea.

15:00-16:30 HERRI BAZKARIA, Elkarte gastronomikoak: Urdinak, Arari, La Kolina, Arrano, Erretena, Txalaparta. Menua: Entsalada, gisatua, postrea eta kafea. Tikitak 10€

16:30-17:00 BERTSO SAIOA, Anaitasuna ikastola, Eskolabarri eskola, Ermua BHI, Ermuko Bertso Eskola.

17:00-20:00 TIROLINA ETA ESKALADA plazako frontoiaren ondoan, Artarrai mendia taldea.

17:00-17:45 PLAZA DANTZA IKASTAROA, Txindurri dantza eta txistu taldea.

17:45-18:30 FLAMENKO IKASTAROA, Lidia Pousa, flamenko irakaslea.

18:30-18:45 DANTZA ERAKUSTALDIA, Pamela Castronen dantza eskola.

18:30 KALEJIRA, Alboka musika eskolako trikitilari eta pandero joleak.

18:45-19:00 ANTZERKIA, Suteji antzerki taldea.

19:00-20:00 ERMUJAN KANTUAN, Euskal Birusa euskara elkarteak.

19:30 ZINEA EUSKARAZ: Pikadero filma. Tokia: Ermua antzokian.

20:00-21:30 KONTZERTUAK, Kokein akustikoa eta Issuna.

21:30-22:30 ERROMERIA, Gauargi.

Egun osoan zehar:

BIDEO PROIEKZIOA, Euskaldun berria plazan: Ermuan Bagara egitasmoa parte hartzaileenak.

TXOSNA Orbe plazan

Maiatzak 29, HAURENTZAKO ZINEA: Iparraldeko Norman filma.

Tokia: Ermua antzokian/ Ordua: 17:00etan.

Maiatzak 29, ZINEA: Pikadero filma. Ermua antzokian, 22:00etan.

Maiatzak 30, ZINEA: Pikadero filma. Ermua antzokian, 20:30ean.



ERMUKO AMAMA AITZITZAK/ LIDIA POUSA FLAMENKO IRAKASLEA/ ERMUJAN EUSKALTZALEEN BAREKO NORBANAKAK. Elkarte gastronomikoak: Urdinak, La Kolina, Erretena, Arari, Arrano, Txalaparta.

Ermuko euskaltzaleen sarea

**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

euskarak batzen gaitu Nos une.

Matrikula epea
ZABALIK

UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak • clases de euskera



15/16

UDAKO
EUSKARA
IKASTAROAK

IKASTARO TRINKOA
IRAILEAN
Azterketa ofizialak urrian

MATRIKULA ZABALIK
ekainaren 30era arte

MAILA GUZTIAK
1. Maila (B1)
2. Maila (B2)
3. Maila (C1)

ORDUTEGIA
9:00etatik
13:00etara
edo
16:00etatik
20:00etara

BEKA SISTEMA
Langabetuek
prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Bulego orduak:

9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
Teresa Murga Eraikina - Goienkale z/g, 2. solairua

943170925

euskaltegia@udalermua.net

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>



ikasi eta bizi izandakoa
ez duzu ahaztuko

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
Azterketak prestatzeko
ON-LINE IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



aek

UDAKO
ESKAINNTZA 2016

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

UZTAILA / IRAILA

B1, B2 eta C1 mailako azterketak prestatzeko ikastaroak
Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)
Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
Irailaren 5etik 30era

4 ordukoak. Goizez zein arratsaldez

AZTERKETAK URRIAN

B1 eta B2

Matrikula-aldia: irailaren 16tik 22ra
Irakurmeneko eta idazmeneko probak:
urriaren 22an

Entzumeneko eta mintzameneko probak:
azaroaren 24tik 26ra

C1 Maila

Matrikula-aldia: irailaren 16tik 22ra
Entzumeneko eta irakurmeneko probak:
urriaren 14an

Idazmeneko probak: urriaren 22an
Mintzameneko probak: abenduaren 2tik 3ra

Diruz lagunduak

Bizkaia etorbidea 13, behea · 943 171940 kaltxango@aec.eus



Euskaltegi homologatua